

EUSKO LEGEBILTZARRA. Alderdien Legeari errekurtsua jartzeko ekimenari osoko zuzenketa aurkeztu diote

Helegitea jartzeari ezetza emango dio Sozialista Abertzaleak

Morcillok Eusko Jaurlaritzari eskatu dio «Espainiarekin kolaboratzeari» uko egiteko

Eduene Begiristain | GASTEIZ

Eusko Legebiltzarrak Alderdien Legeari inkonstituzionaltasun helegitea jartzeko EAJk eta EAK eta EB-IUK aurkeztutako proposamenaren kontra bozkatuko du Sozialista Abertzaleak taldeak, Eusko Jaurlaritzara erazten duten taldeek «oinarrizko eskubideen urraketa kolaboratzeari» uzten ez badiote bederen.

Hala jakinarazi zuen atzo komunikabideen aurrean Antton Morcillo legebiltzarkideak, eta lege besteko proposamenari aurkeztuko dioten osoko zuzenketaren berri eman zuen. Morcillok azaldu zuenez, bere taldeak ez du Jaurlaritzako hirukoaren proposamena babes-tuko, alderdi horiek ez badute «jarrera politikoa aldatzen», alegia, «Espainiarekin kolaboratzeari, Garzon epailearen autoei eta tresna autonomikoak Espainiaren menpe jartzeari ezetz esaten ez badiote».

Gauzak hala, EAJk, EAK eta EB-IUK Sozialista Abertzaleen zuzenketa babesten ez badute biharko eztabaidan, Legebiltzarrak ez luke Alderdien Legearen aurkako helegiterik aurkeztuko, PPK eta PSE-EEk ere aurka bozkatuko baitute.

Antton Morcilloren aburuz, Eusko Jaurlaritzara erazten duten taldeek helegitea aurkeztu nahi dute, «euren burua ziritu nahian dabilatzalako» eta azken asteotan izan duten «jarrera orekatu» nahi dutelako. Sozialista Abertzaleetako legebiltzarkidearen irudiko, EAJ eta EA «egoera eskizofreniko» batean daude: «Batetik, Aznarren aginduak bete behar dituztelako Garzon autoen bitartez, eta, bestetik, kaltegarria ez den salaketa egin behar dutelako espazio abertzalean hegemonia mantentzeko».

Morcilloren iritziz, testuinguru horretan Juan Jose Ibarretxe euskal gizarteari egin diezaiokeen ekarpenik handiena da Espainiar legeei eta «bete beharreko obedientziari» ezeztza ematea. Ildo horretan dei

JAURLARITZAKO HIRUKOA

Erdibideko zuzenketa hitzartu dute hiru alderdiek

Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako lege besteko proposamenaren inguruan erdibideko zuzenketa hitzartu zuten atzo EAJk, EAK eta EB-IUK. Hiru talde horiek Eusko Legebiltzarrari eskatuko diote Auzitegi Konstituzionalean Alderdien Legearen aurkako inkonstituzionaltasun helegitea jartzeko. Era berean, Batasuna lege kanpo utzi izana salatu, eta ETari galdegiten diote indarkeria uzteko.

Hasiera batean Javier Madrazoren alderdiak iritzi zion Eusko Jaurlaritzak aurkeztu behar zuela helegitea. Baina EAJ eta EArekin akordio batera heldu, eta erdibideko zuzenketa hitzartu dute. Alderdien Legearen kontrako arrazoi juridikoak azaltzeaz gainera, hirukoaren zuzenketak dio Alderdien Legeak «oinarrizko eskubideak» urratzen dituela, elkarte eta adierazpen eskubideak kasu. Era berean, ETaren indarkeria behin-betiko etetea eskatzen dute; bai eta PPK eta PSOEek euskal gatazkarekiko erakutsi duten «intolerantzia» salatu ere.

egin zion EAJ, EA eta EB-IURI eskubide guztiak errespetatzen eta Ertzaintzaren «errespresioari» amaiera eman diezaioten.

Bestalde, Morcillok lehendakariari ohartarazi zion Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Sozialista Abertzaleak ez duela «Espainiako inposaketaren aurrean duen apalkuntza eta lotsa estaliko». Izan ere, haren ustez, maiatzaren 13ko hauteskundeaz geroztik Ibarretxeri geratzen zaion gauza bakarra «gobernadore zibilaren jantzia baita».



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Antton Morcillo, atzo, Eusko Legebiltzarrean egindako agerraldian.

MADRILGO FOROA. Euskal gatazkari «irtenbide politikoa» emateko eskatu du

Madrilgo Foroak Batasunaren lege kanporatzea salatu eta elkarrizketa eskatu du

Europa Press | MADRIL

Batasunaren kontrako ilegalizazio prozesuarekin ez dagoela ados jakinarazi zuen atzo Madrilgo Foroak, prentsa ohar baten bidez. Intelektualak, epaileak, kultur arloko langileak, irakasleak eta kazetariak biltzen dituen elkarteak ez dago ados Batasuna lege kanpo uzteko abian jarritako bi bideekin: ez Alderdien Legearekin, ez Baltasar Garzon epailearen autoekin.

Elkarteak azaldu duenez, Batasuna lege kanpo uzteko neurriek oinarritzko eskubideak urratzen dituzte, besteak beste, adierazpen, manifestazio, elkartzeko eta biltzeko eskubideak. Halaber, Foroak zalantzak

ditu neurriok Espainiako Konstituzioaren barruan ote dauden.

Horretaz gain, Foroak salatu du euskal gizartearen zati «garantizitsu» bat ordezkapen politiko eta instituzionalik gabe uzten dela eta «egungo norgehiagoka dinamika gainditzeko bidean traba berriak» sortzen dituela. Era berean, elkarteak kideek gogora ekarri dute euskal gizartearen gehiengoak gaitzetsi duela Batasuna lege kanporatzeko prozesua.

Irtenbide politikoa eta elkarrizketa aldarrikatu dute

Era berean, Euskal Herriak pairatzen duen egoerari «irtenbide politikoa» emateko «bazterketarik gabeko elkarrizketa» aldarrikatu du Madrilgo Foroak. El-

karteak prentsa oharrean adierazi duenez, «euskal gatazkari irtenbide politikoa eman behar zaio, giza eskubide guztiak, indibidualak eta kolektiboak, errespetatuz».

Ildo horretan, «indarkeriarekin behin-betiko bukatzeko bazterketarik gabeko elkarrizketa prozesu bat» irekitzeko borondatea adierazi dute Foroak kideek, bai eta euskal gizarteak bere etorkizun politikoa erabitzeko eskubidea aldarrikatu ere. Hain justu, ideia horiek daude jasota aurtengo apirilean Madrilgo hainbat arlotako 300 pertsonen sinatutako txostenean.

Bestalde, ilegalizazioaren aurka dauden kontra hainbat indar politikok eta iritzi sektoreek jaurtitako «irainak» gaitzetsi dituzte. Hala, Elkarri-ren Bake Konferentzia bezalako ekimenak babesten jarraituko dutela jakinarazi dute Madrilgo Foroak kideek.



Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Finantzaburukudeatzailea behar du.

Interesatuak jarri harremanetan Kontseiluarekin irailaren 20a baino lehen.
943591200
kontseilua@kontseilua.org



ARRIGORRIAGAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ARRIGORRIAGA

IRAGARKIA

Udalbatzak haxe erabaki du 2002ko uztailaren 19an egindako ezobiko batzarrean:

- 1) Udaltzaintzako Arau Subsidiarioetan egingo diren zenbait aldaketa zehatz hasieran onartzea. Hona hemen:
 - Erkidegoko Etxebizitzarako erabilera sartzea Torontegui II Etxebizitzarako Sektoreko Plan Partzialaren lurzoruan, beti ere, Adinekoentzako Egoista bat eraiki ahal izateko bertan.
 - Baimena ematea Industriako Hiri Lurzoruko Mendebaldeko Txako eta Atxukarro Sektoreetan Telekomunikazioen Antena jartzeko, beti ere, telekomunikazio-sareei dagozkien instalazio irratielektrikoaren Ordenantzen bitartez antena horien instalazioa arautu ahal izateko.
 - Lanbarketako dentsitate bikiak Etxebizitzarako Lurzoraren Sektorean bizimodu bakarrekiko etxebizitzak taldekatuen erabilera baimentzea, inguru horretarako aurreikusitako babes ofizialeko etxebizitzaren portzentajea gauzatu ahal izateko.
 - Sestrakeko apakalekuko erabilera sartzea Herri Jabariko Hiri Lurzoruetan.
- 2) Erabaki hau udalaren iragarki-tauletan jendaurrean jartzea eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea hilaletako epean, egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izateko.
- 3) Aldaketa Zehatz hauek behin-behinean onartutaz bartzeta, alegazioak aurkeztzeko emandako epean ez bada halakorik aurkeztzen.

Arrigorriaga, 2002ko irailaren 9^a. ALKATEA, Alberto Ruiz de Azúa Solozabal.